

# LAPURDIKO ATURRIKO EUSKARA: BARDOZEKO *Ū* BOKALAZ<sup>1</sup>

*Kristina Encinar San Martin*

## Laburpena

Lan honetan aurkezten dut *ii* bokalari buruz Bardozen (Lapurdin) egin-dako inkesta linguistiko baten emaitza nagusien interpretazioa. Aipaturiko inkesta horren arabera, Bardozen *ii* bokala berezkoa izan arren, egunak aurrera egin ahala, zailagoa da bardoztarren ahotan entzutea. Ezaguna da Lapurdiko iparrekialdeko biztanle batzuek diotela Bardozeko euskara «nahasia» dela, eta gainera, haien ustez hori ez dela «un bon language». Horregatik, inkesta horretan, galdetegi linguistikoarekin batera, saiatu naiz beste alderdi horri buruzko informazio eta iritziak ere biltzen, ez bakarrik Bardozen, baizik eta baita Mugerren eta Beskoitzen ere. Lan honek eskaintzen ditu *ii* bokalaren egoera eta sustraitzea zein den ezagutzeko ideiak, bokal horren gertaeraren testuinguruari buruzko oharra eta baita *ii* bokalaren agerpena edo gabezia baldintzatu dezaketen faktoreen identifikazioari buruzko gogoetak ere. Izan ere, *ii* bokala bezalako ezaugarriengatik, Lapurdiko Bardozeko euskara interesgarria da Iparrekialdeko nahiz Euskal Herriko euskal hizkeren sailkapena deskribatzeko.

## 1. SARRERA

### 1.1. Galdeketaren abiaburu orokorra eta artikuluko honen helburu nagusia

Aturri ibaia Pirinioetako tontorrik garaienetan jaiotzen da, eta bere besoak Lapurdiko ipar-ekialdea bustitzen du. Bertan kokatzen da *Aturriko euskara* –izendapenaren inguruko eztabaida ikerlan honetan aipatu gabe utziko dut–.

Aturriko euskarak euskalkien mapa marrazteko laguntza handia ekar dezakeela esan ohi da, baina Aturriko euskararen beraren zatiketetan sakontzeak ere ez luke zeregin horretan argi gutxi eskainiko. Izan ere, interesekoak dira

---

<sup>1</sup> Aturriko berriemaile eta laguntzaile guztiei eskerrak eman nahi dizkiet niregana duten urte hauetako harrera eskuzabalaren eta pazientzia agortezinaren truke: ordainduko dut inoiz zuekiko zor handia? Euskaltzaindiaren Azkue liburutegiko langile prestuei ere, eskerrik asko. Eskerrak ematen dizkiet Gotzon Aurrekoetxeari, Joseba A. Lakarrari eta Blanca Urgelli. Nire familia, adiskide eta laguntzen nauten guztientzat ere nire esker ona. Lan honi egin iruzkinak ongi etorriak izanen dira.

oso Lapurdiko ipar-ekialdean zintzilik bezala agertzen den Bardoze herriko euskararen ezaugarri batzuk. Hain zuzen ere, ikertzaileon arreta hartzen duen Bardozeko elementu horietarik bat *ü* bokal «zalantzata» da. Hau da, nolakoa da bokal hori? Ezaugarri horrengatik bardoztarren mintzoa lotu behar da Nafarroa Behereko Amikuzeko hizkerarekin, edo alderantziz, Lapurdiko Aturriko euskaratzat hartu? Hara, galdera handiegiak idazki honentzat. Hala ere, eta bokal honek Bardozeko euskararen bete ahal duen tokiaren nolakotasunari zer-bait hurbiltzeko asmoz, ikerlan honetan Lapurdin egindako galdeketa baten emaitzen interpretazioa ekartzen dut.

Ez du Bardozeko bokal horrek soilik ikertzaileon ardura jasotzen. Izan ere, aspalditik bertako zein inguruko hiztunak ere bere presentziaz jabetu dira. Zehatzago esanda, Lapurdiko alderdi horretan *ü* bokala hiztunak –nahiago bada, hiztunen jatorria– bereizteko eta identifikatzeko baliatzen den tresna omen da. Datuen bilketarako ez ezik, dialektologiaren teoriarako ere interesgarria da berriren bat jasotzea *marker* honi buruz –kanpoko hiztunengandik baina baita bardoztarrengandik ere–.

Aturriko euskara modu xehean edota nolabaiteko arduraz aztertu dituzten iturri batzuen bidez –ik. Bibliografia atala– korpusa osatu eta gero, aukeraturiko berriemaile batzuei galdeketa egin diet. Artikulu honen helburu nagusia inkesta horietako emaitzen interpretazio orokorra jakitera ematea eta Bardozeko *ü* bokalaren ezagutzarako proposamen batzuk eskaintzea da. Izan ere, beste lan zabalago batean aritu nahiko nuke xeheago Aturriko euskarari buruz. Eta horrengatik, artikulu hau ez da lan horren berezko zatitza hartu behar.

## 1.2. Galdeketen testuingurua eta berriemaileak

Jarraian laburtuko ditut lagundu nauten berriemaileen ezaugarri nagusiak. Bi motako hiztunak aukeratu ditut. Batetik, Bardozeko egungo eta aspaldiko euskara ezagutzen dutenak. Eta bestetik, Mugerreko eta Beskoitzeko *NORM* berriemaileak –guztira, lau lagun–. Bigarren talde honetako hiztunak aukeratzeko irizpide nagusiak bertako hizkera egitea edo ezagutzea eta bertan bizi izatea izan dira, eta galdeketa modu orokorrean egin diet. Lehen taldean, ostera, bi multzo egin ditut, hiztunen ezaugarrien arabera. Lehenik, modu arinagoan elkarrizketatu ditudan hiztunak. Laguntzaile horiek guztiak Bardozen bizi dira, eta ezagutu/ezagutzen dute Bardozeko euskara, nahiz eta *NORM* ereduaren baldintza guzti-guztiak ez dituzten betetzen –guztira, lau lagun–. Bigarrenik, galdeketa osoa egin dieran hiztunak, honatx:

- (1) Berriemailea, 63 urte, Bardozen sortua, ama eta aita Hazparnekoak.
- (2) Berriemailea, 77 urte, Bardozen sortua, gurasoak Bardozekoak.
- (3) Berriemailea, 87 urte, Bardozen sortua, aita eta ama Bardozekoak.

Guztira, 11 lagun.

Galdeketak lauzpabost hitzorduetan egin ditut, eta beti giro atsegina sorzea lortu da. Horregatik, berriemaileen erantzunak jasotzeko ez ditut bakarrik zuzeneko galderak edota frantsesaren itzulpenak erabili, solasaldi lasaiak ere baliatu ditut. Galdeketak amaitu eta gero, beste hitzordu bat antolatu nuen zenbait hitzunekin nituen zalantzak argitzeko.

## 2. GALDEKETEN EDUKIA

### 2.1. Korpua osatzeko iturriei buruz

Erabilitako iturriak aztertu ditudanean, lehenetsuna eman diet *ü* garbia duten lekukotasunei. Kasu batzuetan zalantzak izan ditut. Izan ere, oraindik artikulua honen idazketaren momentua arte, hitz batzuen grafiarengatik edota datozen iturrien nolakotasunarengatik, ez dut posible izan *u* eta *ü* idazketen artean aukeratu. Kasu horietan guztietan *u* eman dut geroxeago aurkezten dudan zerrendan. Adibidez, L. L. Bonaparteren eskuizkribuetan batzuetan ez da erraz ikusten *u*, *ü* edota *ou* idazketen arteko harremana, bereziki batera agertzen direnean zenbait hitz zerrendetan zehar. Beste kasu batzuetan, ordea, zalantzak ez dira horrenbesterako izan. Adibidez, EAELko Beskoitzeko eta Urketako emaitzak alderatzen badira, argi ikusten da ez direla irizpide berdinak erabili erantzunen transkribaketan. EHHako grabaketei dagokienez, aldiz, zalantzak askoz arinagoak izan dira.

Erabilitako iturrietako adibideetatik aparte, hitz batzuk gaineratu ditut *ii* bokalaren hedapena hobeki ezagutzeko ideiak ekartzeko asmoz. Hitz horiek izartxo batekin markatu ditut.

Hiztegi arruntaren barneko hitzak bereziki aukeratu ditut. Hitz horiekin guztiekin korpus itxi bat osatu eta horren gainean artikulua honen helburu nagusia eraiki dut. Beraz, korpus itxi honetatik kanpo jasotako lekukotasunak ez ditut lan honetan aintzat hartu.

### 2.2. Korpua

Jarraian inkestetan galdeturiko hitzen zerrenda alfabetikoa ekartzen dut.

ahüntza	auhaldü	bürkhi
aitzur	auharia	bürra
akülia	azabüria	bürü üna
altzürria	barur*	bürülla
alümeta	basakülan	büztana
amü	bazkaldü	egüberri
askaldü	burdina	egüerdi

egun*	küküiso	uda
egürra	larrüa	üdaondar
egürrairiak	lebüra	udare
ehün, berrehün/biehün	legümak	udazkena
epheildü	lümak	uhatx*
erditu, hertu	maikhü	ülhündürtü
ersün	mailü	ülündu
esku*	makhürtü	üme
eskurpiüñ	marrhübi	unyo
eüliak, ülia	masüsa	urde
ezkür	merkatüian	urđin
früitietan	miüküian	urhandi
frutüak	moztu	uri
gaitzürü	mürü	urre
garbüra	müsütü	ürrieta
gathüa	muthu*	urrin
gau	mütür	ürritza
gauerdi*	negü	ursan*
gizun	oihü egin	urtu*
gorpütza	onthüak	urtzo
gu, gure*	orhoitu, orhitu*	urxantz*
gusu, gusia	partitua*	uste izan*
haür	pelatüa	ustel
hün vs. (h)un	phiztu	uthurriac
hür vs. ur	pikatüa	utz*
hurrupatu*	plomü	üztalla
-i бүрүз	-ra бүрүз	xagü
iküztea	sartu*	xuriketa
ilüna	su	zabaldu, zabaldurik
intharrostü	sudur	zalı
isildu*	suge	zelaürü
itsu*	sugeütsü	zerbitzu
kallüa	sükhar	zikindü
kexü	sülfatatu	zorroztü
kharrunte, kharruñ	suskandila	züpi
khürlo	suskar	zura
küba	thü egin, thüa	zuritü

### 2.3. Korpusa osatzeko erabili ditudan galderak

Arestian esan bezala, irudi luke Bardozen –baina baita Bardozetik kanpo ere– balio berezia ematen zaiola *ü* bokalaren agerraldiari. Inkognita hori argitzen saiatu ahal nintzela ikusi bainuen, pertzepzio-dialektologiaren bidetik –ingelesezt,

*Perceptual Dialectology*<sup>2</sup>– galdera batzuk egiteari egoki iritzi nion hastapenetik. Horregatik, galdeketa zehar, eta beti ere giro atseginean murgilduta, Bardozeko euskarari buruzko iritziak eskatu dizkiet berriemaileei. Batzuetan, galdera zuzenak erabili ditut. Beste batzuetan, ordea, berez atera da gai hori elkarrizketan. Egin dizkiedan galderen adibide batzuk idazten ditut jarraian.

- Bardozen txikitik hitz egiten zenuen euskaraz? Eta orain? Herri guztian berdin hitz egiten zen/da? Alderik bazen/bada inguruko herriekin konparatuz?
- Bardozen izan zara? Euskaraz hitz egiten da/zen bertan? Ulertzen duzu Bardozeko euskara? Nolakoa da? Aipatuko didazu Bardozen erabiltzen den hitz edo ezaugarriren bat?
- Ba duzu zure inguruan bardoztarrak? Euskaraz hitz egiten duzue elkarrekin? Berak zure euskara ulertzen du? Zer esaten du?
- Lehen esaten zen bazela euskara «ona» eta «txarra»? Nork esaten zuen? Eta orain?

### 3. GALDEKETEN ERANTZUN NAGUSIEN LABURPENA

#### 3.1. (1) Berriemailea

- a. Oso erantzun gutxi eman ditu *ü* bokalarekin. Bokal honetaz galdetu izan diodanean saiatu da elkarrizketan batzuk txertatzen.
- b. Partizipio burutu zenbaitetan eta hitz batzuetan *-üa* entzun dut (*partitüa, ormatüa, negüan, zalüa, mirüa*). Hala ere, gehienetan iruditu zait errazago esan dituela *-uia* amaieradun hitzak. Berriemaile honek Bardozen berezkoagoa omen den *-ia* amaiera ere ezagutzen du, baina ez du maiz erabiltzen. Gainera, batzuetan, (1) hiztun honen *-üa* ez zait (3) hiztunarena bezain garbia iruditu, hau da, *-üia* edo antzeko zerbait ere entzun izan diot (*aphezpiküia*). *Mürriüa* erantzunaren *-üa*, ordea, argia izan da. Gertaera horien guztien atzean hizkuntzaz kanpoko eragileak ere egon daitezkeela iruditu zait.
- c. Berriemaile honentzat Hazparneko euskara eta Bardozeko euskara gauza berdina dira, nahiz eta badiren hitz batzuk aldatzen direnak. *-uia* eta *-ia* amaieren artean Bardozekoa zein den galdetuz gero, biak direla Bardozekoak esaten du, biak berdinean esaten direla.
- d. *Früitietan* eta *mürriüa* erantzunetan frantsesaren ordainaren eragina ere badela ematen du.

<sup>2</sup>Ik. Preston, D.R., 1989, *Nonlinguistics' Views of Areal Linguistics*, Foris, Dordrecht.

- e. Hitzun honen ustez *ü* bokala ez da askotan Bardozen entzuten, bakarrik hitz batzuetan. Eta etxean erabili ez duten arren, beti ulertu izan dute-la dio. Bardozen *ü* bokalarekin esaten diren hitzak bertakoak ez direla esaten du, hain zuzen ere, Donapaleu, Amikuze edota Zuberoakoak direla. Ahalmena du aipatzeko bere ustez Bardozoko euskararenak diren ezaugarri batzuk (*ekheerri*, züketa alokutiboa, eta abar) baina ez dirudi bere hizkeran txertatu dituenik.

### 3.2. (2) Berriemailea

- a. Eman dituen erantzunetan *ü* bokalaren ahoskera (1) hitzunarena baino zertxobait garbiagoa dela iruditu zait.
- b. Jarraian ekartzen ditut berriemaile honen galdeketan *ü* bokala duten erantzun gehienak, salbuespenak eta guzti: *zuritü, zikindü, pikatü/pikatu, aphaldü, askaldü, auhaldü, sulfatü* eta *isildü* baina *akülatu, orhoitu, pelatu, urtu, onthu* eta *xorroxtu; akülia, larrü, gathü, hürra, müriü, xüria, amü, ersün, kexü, mendira büriüz, egüberri, barür, üztalla, üdaondar, egürra, ilhündürial/ülhündüria, gorpütza, oihü, maikhü, azabüria, maasüsa, züpia, zelaurü, üsteldia, negü, büztanal/buztana, haiürra, ahüntza*.
- c. Frantsesaren eragina ikus daiteke *garbüra, alümeta, basakülan, legümak, lebüra* erantzunetan, adibidez.
- d. Erantzun batzuetan *gathüa* eta *gathia* gisako hitzen artean zalantza izaten duen arren, *gathia* eta *gathü bat* aukeratzen ditu amaieran. Ez dut *gathüa* aldaeraren alde egiten entzun.
- e. Korpusaren hitz kopuru osoa aintzat harturik, hitzun honen erantzunen heren bat edo eman du *ü* bokalarekin, gutxi gora-behera, salbuespenak barne. Gauza bera esan daiteke (3) berriemaileari buruz.
- f. Hitzun honek hasieran ezkor agertzen bada ere, galdera batzuen ostean memoriak erantzuten dio eta ederki aritzen da galdeketan. Kasu batzuetan, oso ziur da bere erantzunaz, eta zalantza duen kasuetan, gehienetan *ü* bokala duen aldaeraren alde egiten du. Bardozen horrela hitz egiten zela esaten du, baina hala ere, bere ustez Bardozoko euskararen ez da oso txertaturik egon, ez da «oso berezkoa». Hau da, hitzun honen aburuz, egia da *ü* bokala bardoztarren euskararen aurkitzen dela, baina txertatuago dago, adibidez, Amikuzen.

### 3.3. (3) Berriemailea

- a. (2) hitzunaren kasuan bezala, *ü* bokalarekin eman dituen erantzunetan bokal horren ebakera (1) hitzunarena baino garbiagoa izan da.

- b. *Ü* bokalarekin eman dituen erantzunen adibide batzuk: *zikindü, auhal-dü, onthü, idortü*, baina *akulatu, garbitu, urthu, moztu, aphaldu, makhurtu, pikatu, epheildu, afaldu, xorroxtu, ustelduko* eta *bazkaldu; entzüten, büztanaakin, ürrixa/urrixa, thü, lekhüitan, azabiüria, üdaria/udaria, batzü, bürian, güti, üztarrian, hürra, ahüla, ülhüna/ilhüna, egürra, egürriliak, marrhübia, ümia/umia, ürte, itzülikatzeko, hüna, ülia, baakizü, lürrien, gaiztüriü.*
- c. Frantses ordainaren eraginaren bidean kokatuko nituzke hurrengo adibide hauek: *bürra, aliümetak, düdako, otobüsak, lagümak, garbüra.*
- d. Lehen egunetik aurrera *ü* bokala entzun izan diot hiztun honi. Hala ere, beharbada euskaraz mintzatzeko ohitura faltagatik, ez du erakutsi aurreko galdeketa batzuetan agerturiko ziurtasuna. Esan behar da minutu batzuen ondotik badakiela ezberdintzen bere ustez Bardozekoak diren aldaerak. Horrekin batera, *ü* bokala (2) hiztunak dioen baino askoz ere zabalduagoa zegoela esaten du. Gainera, Bardozen euskara «ona» ez dela egiten uste du, eta euskara «polita» entzuteko Hazparnera edota Uztaritzera joan behar dela. Ez daki zergatik esaten duten *ü* hori, baina *duaikha, hantik ekharria* pentsatzen du, ez baita, bere ustez, Bardozen sortu.

### 3.4. Gainontzeko berriemaileen ekarpenak

Galdeketa erantzun duten Bardozeko berriemaileek *ü* bokalari buruz dituzten iritziak mota askotakoak dira. Gehienek esaten dute Bardozen bokal hori bazela/badela, eta aspaldian gehiago entzun zitekeela orain baino. Bada iritzien gutxiengo bat, ordea, uste duena Bardozen ez dela bokal hori agertzen, batzuek esaten zutela/dutela, baina haiek ez zutela/dutela erabiltzen. *Ü* bokalari buruzko galdeketa pixka bat sakondu dudanean, Bardozeko berriemaile batzuek erantzun dute haien euskara ez dela *ona*, hainbat hizkuntzekin nahasten dutela, ez dela euskara *garbia*, eta beraz, *ü* hori ez dela esan «behar»<sup>3</sup>. Halarik ere, lagun horiek jarraian gaineratu ohi dutena *bainan erten da* izaten da. Gaineratu nahiko nuke Bardozeko hiztun gehienek Mugerre edota Beskoitzeko euskara *konprenitzen* erraza dela esan didatela.

Bardozetik haratago galdeketetan, hau da, Mugerren eta Beskoitzen, Bardozeko hizkera zertxobait diferentea dela esan didate orokorrean. Baina *ü* bokalaz galdetu izan dudan gehienetan, ez zait iruditu ezaugarri horretan Bardozeko hiztunek bezainbeste arreta jartzen dutenik, izan ere, batzuek ezagutzen dute *ü* bokala ez den Bardozeko bestelako ezaugarriren bat ere. Dena den,

<sup>3</sup>Ik. Preston (2006): «This may indicate that northern speakers are more focused on the symbolic use of their own variety as a vehicle for standardness, education, and mainstream values, but are less concerned with language variety as a vehicle for solidarity.».

Mugerre eta Beskoitzeko berriemaile askok *dena nahaxtekatuik duxu hor* edota antzeko zerbait esaten dute. Badira, ordea, modu positiboagoan pentsatzen dutenak, ezberdintasun horiek –baita beraien euskararen barnean direnak ere– erlatiboki hartuz. Bide honetatik, batzuek diote Bardozeko euskara ulerzea erraza dela, eta beste batzuek, aldiz, ez dela *konprenitzen*.

Esan dezadan Mugerren *miriia* bezalako hitz bakan batzuk jaso ditudala/direla<sup>4</sup>, baina artikulua honen idazketaren unean ez dut posible izan horrelako adibideen lekua zehaztea. Iruditzen zait azterketa fonetiko-fonologikoarekin batera, azterketa akustikoa ere baliagarria izan daitekeela *ü* bokal horiek guztiak ongi identifikaturik egon daitezen<sup>5</sup>.

#### 4. ONDORIO ETA PROPOSAMEN ZENBAIT

Bardozeko *ü* bokalari buruz idatz daitezkeen galderak kolore askotakoak dira: euskal hizkera horren barneko fonematizat har daiteke? Nolako banaketa fonetiko-fonologikoa erakusten/zoritzen du? Bardozeko euskara egiten dutenek bakarrik esaten dute edo bertako euskaldun guztiek erabiltzen dute? Nolako iritziak dituzte bardoztarrek eta inguruko euskaldunek bokal horri buruz? Gisa horietako galderen erantzuna aurkitzen laguntzeko, jarraian laburtuko ditut, batetik, ikerlan honen testuinguruaren barruan kokatu behar diren ondorio nagusiak, eta bestetik, Bardozeko *ü* bokalaren azterketa egiteko aintzat hartu ahal diren proposamen batzuk.

##### 4.1. *Ü* bokala

Begien bistako baieztapena iruditu arren, esango dut Bardozeko euskarari *ü* bokala aurkitzen dela. Gainera, kanpokoek eta bertokoek ezagutzen dute, Bardozeko hizkeran nolabaiteko presentzia *indartsua* edo *arrunta* duen/zuen bokala da.

##### 4.2. Nork esaten du *ü* bokala?

Bardozeko hizkera egiten duen bardoztar batekin ezkondu dagoen arren, eta Bardozen bizi arren, (1) berriemaile bardoztarraren euskarari ez da *ü* bokala *erabat* txertatu. Bere gurasoek Hazparneko euskara egiten zuten, baina

<sup>4</sup>Ondo entzun ote ditut EHHako Mugerreko *azeriütztana* bezalako erantzunak?

<sup>5</sup>«En ciertos casos una *u* antigua ha pasado a *ü* en suletino, bajo-navarro oriental de Mixe y en el habla (bajo-navarra o labortana) de Bardos. En suletino la realización normal de /ü/ es más próxima a fr. /ø/ que a fr. /y/ (6). Como simple variante del fonema /u/ en ciertos contextos, una vocal anterior redondeada es también conocida en otras zonas.» (Michelena 1961: 51-52).



Bardozeke euskarara moldatzen bazekiten, hain zuzen ere, une bakoitzean aurrean zuten solaskidearen arabera. Hau da, ezagutzen zituzten Bardozeke euskararen ezaugarriak, baina ez zituzten bere hizkeran *erabat* sartzen. Lehengo bizimoduaren ardatza etxea zen, eta bizimoduari lotuta egon da beti hizkerara. Agian horrela azal liteke Bardozeke bestelako mintzamoldeak ulertzeko ahalmena eskuratu izana etxeke euskara erabat galdu gabe. Nire ustez, gertatzen hauek ulertzeko ezagutu behar dira ez bakarrik hiztunen jatorriak –nor den Bardozekea eta nor ez–, baizik eta baita herrian egiten zituzten gauzak ere, atzendu gabe usadioak, ohiturak, bizimoduaren ezaugarriak, eta abar.

Arestian aipaturiko ideia bideetik, beharbada horrela ere azalduko litzateke galdeketa kanpoko hiztun bakan batzuek *ü* bokal hori inoiz ere ez entzun izana. Hau da, agian ez dute haien bizimodua bokal hori erabiltzen duten lagunekin lotu. Euskaldun horiek nolako eta norekiko harremanak dituzten ikustea intereseko gaia da.

Bide beretik, ikusi beharko litzateke *ü* bokala egiten duten bardoztarrek elkarrekin hitz egiteko aukera duten/zuten edo ez. Nola moldatzen ziren? Soilik *ü* bokal hori zeukaten euskaldunekin zirenean mintzaten ziren beren hizkeran? Eta pixka bat haratago joanez, hiltzorian egon arren, aldatzen jarraitzen baitute<sup>6</sup>, oso interesgarria litzateke aztertzea hiltzorian diren hizkerek nolako eragileak jasotzen dituzten aldaketak egiteko.

### 4.3. Aztertutako iturriak

Aipatu ditut iturri guztiak ez direla fidagarritasun maila berekoak. Ikerlan honetan aukeratu ditudan adibideak Bardozeke berezko euskaratzat hartu ditut, eta gisa horretan baloratu izan ditut galderak egin eta erantzunen emaitzak baloratu ditudanean. Nire helburua ez da izan hitz horiek eta gaur egungo berezko Bardozeke euskara arteko garapena deskribatzea, baizik eta nire asmoa izan dela galdeketa erabiltzeko korpus fidagarri eta borobil bat osatzea. Halaz guztiz ere, esan dezaket iturri horietako galdeketa gaur egun egingo balira, *ü* bokalarekin askoz adibide gutxiago lortuko lirakeela. Gainera, berriemaileen erantzunetan eskuratuko litzatekeen ziurtasun maila ez litzateke oso handia izango. Hau da, duela hamarkada batzuk baino askoz gutxiago esaten –edo *entzuten*– den elementua da *ü* bokala.

Badira, ordea, nahiko egonkor mantentzen diren erabilerak –*güti*, *büria*, *-ra büürüz*, eta abar–, hiztun batzuk oso ziur dira bokal horren tokiaz, eta horregatik bai iruditzen zait iturrien azterketa eta galbahe on batek onura handiak ekarriko litzukeela. Izan ere, *ü* bokala *kontserbatzeko eredurik* ba da? Hau da, testuinguru fonetiko-fonologiko/lexiko/morfologiko batzuk egokiagoak dira beste batzuk baino?

<sup>6</sup>Berrikuntzak egiteko ahalmena ez omen dute galtzen, nahiz eta desagertzeko puntuan egon.

#### 4.4. Testuinguru fonetiko-fonologikoa eta Bardozeko euskararen egoera

Aurreko ideia horretan iradoki dudan bezala, adierazi nahiko nuke beharrezkoa litzatekeela aztertzen saiatzea *ü* bokalaren testuinguru fonetiko-fonologikoa. Fonematzat hartu behar da? Galdeketa ez dut galdera hori taxuz erantzuteko adibide aski aurkitu, baina zalantzarik gabe, topatu daitezke pare minimo batzuk *-hür/ur-*, nahiz eta oso urriak izan, edo ongi esanda agian, gero eta urriagoak.

Erantzunetan batzuetan irudi luke *ü* bokalak partizipioaren *-tu/-du* marketan agertzeko joera duela, baina orduan berriemaileek jarraian kontrako bizpahiru adibide esaten dituzte. Beste kasu batzuetan, ordea, zain egon naiz *ü* bokala noiz agertuko, eta bat-batean, *ülhündürü/ilhündürü* bikotea agertzen da, *ü* duten beste hitz batzuen aurretik. Gainera dezadan (2) eta (3) hiztunek ez dituztela arras berdinak diren erantzunak ematen, hau da, batzuetan bat datozen arren, gertatzen dela modu berean batek *u* dioen tokian besteak *ü* bokala sartzen duela hitz batzuetan. Horregatik, irudi luke *ü* bokal hori *-bokal* horren tokia, *maila-* hiztunez hiztun ere aldatzen den ezaugarria dela. Gertatzen hauekin batera, badira niretzat oso esanguratsuak diren alderdiak. Batetik, *marr(h)übia* edota *su(i)a* bezalako hitzetan ziurtasuna handi-handia izatea, eta bestetik, euskaraz egiteko hamarkada askotako ohitura falta duten galdeketaz kanpoko hiztunek ere *büria*, *ilhiin* eta antzekoak esatea, eta are gehiago, Bardozeko ezaugarritzat hartzea, eta ez *buria*, *ilhun*. Dena den, esan dudan bezala, lan honetan ez ditut xeheki aztertzen galdeketetatik kanpo diren hiztun horiek. *Itzülilikatzeko* eta *auhaldü* gisako erantzunak jasotzeak, eta ez *ützülilikatzeko*, *aühaldü* *ü* bokalaren emankortasun fonetiko-fonologikoaz zerbait kontatu ahal du? Korpus zabalagoa beharko litzateke, agian, zerrenda luza daitekeen edo ez ikusteko.

Aurreko lerro horiei guztiei loturik, eta egindako inkesten gainontzeko erantzunak kontuan harturik, aztergai interesgarriak eta beharrezkoak etorriko lirateke. Hau da, nola interpretatu beharko litzateke *u/ü* pare minimo gutxi batzuk egotea, aldi berean galdeketaren erantzun gehienetan *u* *-eta ez ü-* agertzea, zenbait hitzetan zalantzarik gabe *ü* berrestea, eta gainontzeko kasuetan, zalantza ez bada, bietariko aldaerak onartzea? Gibelka ari den fonema bat litzateke? Lexikalizaturiko hitzak izan daitezke *ü* bokala duten guztiak? *Ilhiin* eta *oihü'in* erantzunetan, adibidez, *ü* bokalak *paper* fonetiko-fonologiko berdina izango luke? *Ü* bokal hori emankorra da Bardozeko hizkeran? Nolako eragina du Bardozeko euskararen egoerak *ü* bokalaren agerraldietan?

#### 4.5. *Ü* bokalari buruzko iritziak

Inkestaturiko lagunak Bardozeko *ü* bokalaren presentzia *indartsuaz* edo *arrantaz* jabetuak dira, baina *bitxia* ere badela iruditzen zaie orokorrean. Na-

hitaezkoa litzateke jasotzea eta ordenatzea bertako zein kanpoko hiztunek hizkera honi buruz dituzten iritziak<sup>7</sup>, bereziki aburu hauek euskara mintzatuan nolako indarra duten/izan dezaketen deskribatzeko. Izan ere, batzuetan, hiztunek ez omen dakite oso modu argian *ü* bokala noiz erabiltzen den, edota *zergatik* erabiltzen den. Adibidez, EHHako hiztun batzuek bezala, ikerlan honetan inkestaturiko lagun zenbaitek ere, *ü* bokala elkarrizketan ateratzen denean *dependitzeuk/uxu konberzazionea* edo antzeko iritziren bat esaten dute. Beste batzuek, ordea, uste dute ahoskerak idazketarekin zerikusia duela, eta zenbait alditan *ü izkiriatzen da* –hots, <u>–, *bainan u erten da* –hots, <ou>– esaten dute.

Bide beretik, kontuan hartzen badugu nahiko modu orokorrean pentsatzen dela Bardozen dena *mélangé* hitz egiten dela, eta hori lagun batzuek ez oso modu «positiboan» hartzen dutela, nolako eragina izan dezake uste horrek *ü* bokalaren presentzian? *Ü* bokala atzeraka ari den ezaugarritzat hartuko balitz, bere agerraldien kopurua murrizten duen hizkuntzaz kanpoko eragile baten menpean ere egongo litzateke?

Ez dezadan esan gabe utzi ondoko hizkera bati buruzko iritziak ez direla zertan berdinak izan behar hango hiztunek hemengo hizkeraz dituzten usteekin alderatuta. Hots, hizkereri buruzko pertzepzioaren norabide guztiak ezagutzea gomendagarria dela, izan ere, modu horretan arituz, hizkera horietako gertakera batzuek azalpen borobilagoa eskuratu dezakete, jokoan diren eragile guztien berri emanez.

## 5. LABURTUZ

Ikerlan honetan ekarri ditut inkesta batzuen emaitzen interpretazioen inguruko gogoeta batzuk, *ü* bokalak Bardozekeo euskaran duen tokia –oso modu orokorrean bada ere– ezagutu ahal izateko. Zalantzarik gabe, *ü* bokala Bardozekeo euskaran bada/bazen, baina gaur egingo balira duela hamarkada batzuetako galdetegiak, erantzunak oso bestelakoak izango liriteke.

Ez dituzte Bardozekeo euskaldun guztiek bizipen berdinak izan *ü* bokalarekin, eta horregatik, hizkeran duen erabileraren ezagutzan aurrera egingo bada, ezinbestekoa da kontuan hartzea berriemaile bakoitzak izan duen bizimodua eta ohitura multzo horiek zoritu dituzten harremanak. Ahalik eta lasterren bokal horren testuinguruak zehaztu beharko liriteke galdetegi luzeago eta hiztun gehiagorekin, izan ere, pare minimoak urriak dira, eta urtez urte, hiztunek bikoteen artean aukeratzeko dituzten zalantzak areagotzen dira. Gainera, *ü* bokala hiztun batetik bestera aldatzen den ezaugarria dela ematen du.

<sup>7</sup>Ik. Taedelmanek (1989:159) dioena: «The degree or opposition to the surrounding rural dialects may vary from town to town, but everywhere it is quite evident and people are aware of it.».

Bardozeoko hiztunengan ez ezik, inguruko euskaldun batzuegan ere badira arreta merezi duten iritziak *ü* bokal honekiko eta zenbait kasutan Bardozeoko euskararekiko: euskara *garbia* eta *ona* ez dela, dena *nahasturik* dela. *Ü* bokalaren agerraldien kopurua aztertzekeo ideia hauek kontuan har daitezke, eta baita Bardozeoko euskara hiltzorian dagoen hizkera izatea ere.

Inguruko hizkeretan –Mugerren, Amikuzen, eta abar– aurkitzen diren adibideak akustikoki ere analizatzea ondo legoke, bereziki Bardozeoko emaitzekin duten harremana edota balizko eragina ezagutuko bada.

## 6. BIBLIOGRAFIA

- ALLIÉRES, J., 1960-1961, «Petit atlas linguistique basque-français ‘Sacaze’», *Via Domitia* VII, 205-221 eta VIII, 81-126.
- , 1977, «Petit atlas linguistique basque-français ‘Bourciez I’», *FLV* IX-27, 353-386.
- , 1986, «Petit atlas linguistique basque-français ‘Bourciez II’», *FLV* XVIII-47, 5-45.
- ARANA MARTIJA, J.A. & GONZALEZ ETXEGARAI, C., 1989, *L.L. Bonaparteren Eskuizkribuak—Argitarapenak*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA, 1984-1990, *Euskal Herriko Atlas Etnolinguitikoa*, 2 liburuki, Donostia.
- AURREKOETXEA, G. & VIDEGAIN, X., 1993, «Euskal Herriko Hizkuntz Atlas: Galdesorta», *Euskera* 38-3 [separata], Bilbo.
- CHAMBERS, J.K. & TRUDGILL, P., 1980, *Dialectology*, Cambridge University Press.
- DUHAU, H., 1993, *Hasian Hasi* [Beskoitzeko heskuara], Alinea, Donibane Lohizune.
- , 2003, *Hasian Hasi* [Birden parte], Alinea, Donibane Lohizune.
- ECHAIDE, A.M. (arg.), 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, 2 liburuki, Euskaltzaindia, Bilbo.
- ETXEBARRIA, J.M., 1983, «Las grabaciones de Viena en euskera», *Mundakiz* 47, 61-63 eta 68-71.
- EUSKALTZAINDIA, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas [EHHA]*, Argitaragabea, Bilbo.
- GARZIA, J. & URKIZU, P. (arg.), 1991, *Bertsolaritzaren Historia*, Etor, Donostia.

- LAFON, R., 1962, « Sür la voyelle ü en basque », *BSL* LXII, 83-102.
- MICHELENA, L., 1977[1961], *Fonética Histórica Vasca*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- PAGOLA, R.M. ET. AL., 1999, *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Ekialdeko Behe-Nafarrera*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- PRESTON, D.R., 2004, «Language with an attitude», in Chambers, JK. & Trudgill, P. & Schilling-Estes, N., 2004, *The handbook of language variation and change*, Blackwell, Malden, 40-66.
- , 2006, «Perceptual dialectology», in Brown, K.(ed.), *Encyclopedia of language and linguistics*, Elsevier, 258-266.
- SALABERRY, B., 2002, «*Mugerreko euskara: hurbilketa bat - Euskara batuaren eragina euskalkian*», Euskal Ikasketetako Tesina-lana, zuzend. X. Videgain, Euskal Ikasketen Unibertsitateen arteko Saila, Pabe eta Aturri aldeko Unibertsitatea, 2001 (laburpena)», *Lapurdum* VII-urria, 353-355, IKER-CNRS, Baiona.
- TAEDELMAN, J., 1989, «Typology of dialect transitions in Flanders», in M.E.H. Schouten and P.Th. van Reenen (edit.) 1989 [1987], *New Methods in Dialectology*, Foris, Dordrecht-Holland/Providence RI - U.S.A, 155-163.
- YRIZAR, P. DE, 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, Donostia, 2 liburuki.
- , 2002, *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro oriental (Estudio dialectológico) [I-II-III]*, Euskaltzaindia-Euskal Herriko Unibertsitatea-État Française/Frantsez Estatua-Pirinio-Atlantikoetako Kontseilu Orokorra-Akitaniako Kontseilua, Bilbo, 1999-2002.
- ZUAZO, K., 1989, «Zubereraren sailkapenerako», *ASJU* XXIII-2, 609-650.